

IÑAKI OLAZABAL

IÑAKI OLAZABAL

I.O. Metalezko aleazioen plastikotasuna

Euskal Herrian, eskulturaren garapena, gaur egun, bide eta proposamen nahasien aniztasun bat da; tradizio moderno eta abangoardista baten bir-asmetatik abiatzen eta arteak naturarekin, izatearekin, identitatearekin, materiarekin, espazioarekin edo hutsarekin dituen harremanak finkatu eta esploratu zituzten izen handien pisua du. Proposamen haien pisu artistikoak eta kulturalak kanon edo arrasto ezabaezina utzi zuen ondorengo artistengan. Artistok ahaleginak egin dituzte euren aita fundatzaileak errespetatzeko, baina, aldi berean, baita haiengandik askatzeko eta haiek zalantzan jartzeko ere. Helburua da bai aurreko iturrietan bai eskultura abstraktuaren eta haren esanahi sinbolikoaren arteko lotura sendo eta saihetsezinean arakatzea. Eskultura hori, sarritan, estilo baten modura betikotu da. Batzuetan estigmatizatzailea eta astuna da; eta noizbehinka hurbilago dago tramankulu kulturaletik edo forma folklorikoen herentziatik.

Īnaki Olazabalen eskulturak ere egin du fundatzaileak eta euskal eskultura berriaren joera berritzaileak omentzeko baina, aldi berean, haietatik urrutiratzeko ibilbide hori. Formen izaera eraikitzaile itzultzearen aldeko apustua egiten du bere lanetan, eta horren inplikazioa oso adierazgarria da formak espazioan hartzen duen itxura sinbolikoan.

Īnaki Olazabalek autonomia formala lortu du bere piezetan. Ematen du euskal eskultura abstraktua gainditzetik sortzen direla piezek, nahiz eta haren arrasto edo keinu batzuk gordetzen dituen (maklatuak, espazialtasunak edo hustuketak), baina materialaren tratamenduan eta egiturazko artikulazioan ekarpen berezi bat eginda. Formaren presentzia erradikalizatu egiten du, saiakeraren eta makurduraren esanahiak ezkututzen dituen irrika eraikitzaile batean. Adibidez, soldatzeko moduan, metalezko txapak gainjarri egiten ditu urtutako materialarekin. Material urtuak tantakatu, zikindu eta aberetu egiten ditu azalerak, eta testurak eta akabera indartzen ditu, zinkaren eta eztainuaren gris neutroetan herdoilduta; horiek, aldi berean, zehaztu egiten dituzte formak —aplikatutako ofizioaren bidez humanizatutakoak—, eta, gainera, forma horiei erregistro epidermikoak ekartzen dizkiete, filiazio alemaniarren adierazkortasun neurritsu batean.

Īnaki Olazabalen piezek kanpoko elkarrizketa bat sortzen dute bere piezen eta elementuen artean: lan batzutan, paisaiaren eta lurraldearen alderdi batzuk mugarri bezala seinalatzeko edo markatzeko (adibidez, ibai baten ibilbidea, memoriaren leku bat), edo, naturan, eskala monumentalean egindako leihoak eta atea irekitzeko

eta horietatik barrena begiratzeko. Forma konposatuak dira, jatorri geometriko arrazional batetik abiatutakoak, eta, emaitza modura, egituratze abstraktua, eduki sinbolikoak eta anbibalentzia eragiten dituzte itxura organikoaren eta bere gauzatzearen osakera metalikoaren artean.

Olazabalen ustez, egituraren ebidentzia, objetutasun materiala eta erakusten eta ezkututzen dutena dira bere obraren berezitasunak. Horiek guztiek bere itxuraren sendotasun zatikatua erakusten dute, bai eta material industrialetan sortutako oinarrizko formak ere, tradiziozko materia arketipikoetatik urrunduta (egurra, harria, burdina). Obrek elkarrizketarako posibilitatea edo ezintasuna, itxikeria edo bere barruan harrapatutako sentimentaltasun hauskorra ezkututzen dituzte, txapazko kutxa eta poliedro batzuetan eta gertuko edo parez pare jarritako irudietan.

Beste batzuetan, berriz, azalera pintatutako zeinua erakusten dituzte, bere izaera totemikoari erantsitako seinaleetika primario moduan, eta beti tentsio bat ezkututzen dute organikoa den horren eta eraikitakoa den horren artean. Pieza konposatu batzuek hormaren mendekotasuna bilatzen dute, aingura gisa, eta koloretako elementu txertatuak izaten dituzte —formen aktibatzaile—, edo zalantzan jartzen dituzte balio sozial eta politikokoak (adibidez, Medallas sailean).

Iñaki Olazabalen izaera pertsonalaren eta artistikoaren askatasun indibidualak borondate adierazkor irmo bat dauka, zeina obra sendo batzuetan birsortzen duen, aleazio metalikoen itxura batekin. Horiek nahastu egiten dira kontrako formekin, hondakin naturalekin edo denborak arkeologizatutako industriaurreko piezekin. Eskultore egiazale eta zuzen baten aparteko ezaugarriak.

Javier Balda, 2016ko azaroa



I/G - Neurriak: 55 x 60 x 13 cm.



I/G - Neurriak: 50 x 42 x 42 cm.



I/G - Neurriak: 45 x 41 x 17 cm.



I/G - Neurriak: 85 x 30 x 30 cm. eta 68 x 27 x 36 cm.



I/G - Neurriak: 50 x 55 x 26 cm. pieza bakoitzak



I/G - Neurriak: 50 x 55 x 26 cm.



I/G - Neurriak: 170 x 100 x 26 cm.



I/G - Neurriak: 230 x 153 x 153 cm.

1.0. Plasticidad de las aleaciones metálicas.

El desarrollo actual de la escultura en el País Vasco es una diversidad de caminos y propuestas amalgamadas, desde la re-invencción de una tradición moderna y vanguardista, con el peso de los grandes nombres que establecieron y exploraron las relaciones del arte con la naturaleza, el ser, la identidad, la materia, el espacio o el vacío. El peso artístico y cultural de aquellas propuestas fijó un canon o una marca indeleble en los posteriores artistas, que han tratado de respetar a sus padres fundadores, pero también simultáneamente, de desprenderse e interrogarse sobre ellos, para indagar en fuentes anteriores y en el significado de esa fuerte e ineludible ligazón de la escultura abstracta y su carácter simbólico, que recurrentemente se ha perpetuado como un estilo, a veces estigmatizante y pesado, ocasionalmente más próximo al artefacto cultural o a la herencia de formas folklóricas.

La escultura de Iñaki Olazabal ha recorrido ese trayecto de homenaje, pero a su vez de distanciamiento, tanto con los fundadores, como con la corriente renovadora de la nueva escultura vasca. Su trabajo es una apuesta por la reconducción del carácter constructivo de las formas, con una implicación significativa de su aspecto simbólico en el espacio.

Iñaki Olazabal ha logrado una autonomía formal en sus piezas, que parecen proceder de la superación de la escultura abstracta vasca, aun conteniendo de ella algunos rasgos o gestos de maclajes, espacialidades o vaciamientos, pero en una singular aportación en el tratamiento del material y su articulación estructural, radicalizando la presencia formal en un afán constructivo que encierra significados de esfuerzo y doblegamiento, por ejemplo en la manera de soldar, solapando las chapas metálicas con el material fundido que gotea, ensucia y embrutece las superficies enfatizando las texturas y el acabado, oxidado en neutros grises del zinc y del estaño, que a su vez matizan y aportan registros epidérmicos a las formas -humanizadas por el oficio aplicado- en una contenida expresividad de filiación alemana.

Las obras de Iñaki Olazabal llevan a plantear un diálogo exterior entre sus piezas y elementos; en algunas obras para señalar o marcar como hitos aspectos del paisaje y del territorio, como el curso de un río, un lugar de memoria, o recrear en escalas de carácter monumental ventanas para contemplar a través de ellas y puertas

de paso en la naturaleza; formas compuestas desde un origen geométrico racional hasta el resultado de estructuración abstracta, de contenidos simbólicos y de ambivalencia entre su apariencia orgánica y la constitución metálica de su realización.

Olazabal considera lo significativo de sus obras tanto en una evidencia de la estructura, como en su objetualidad material y en lo que muestran y ocultan. Muestran la solidez fragmentaria de su aspecto, el origen y la generación de formas básicas en materiales industriales, alejándose de las materias arquetípicas tradicionales: la madera, la piedra, el hierro. Ocultan, en algunas cajas y poliedros de chapa y en figuras próximas o enfrentadas, la posibilidad o imposibilidad del diálogo, la cerrazón o la frágil sentimentalidad atrapada en su interior.

Muestran otras veces, signos pintados en su superficie como señaléticas primarias añadidas a su carácter totémico, y ocultan siempre una tensión entre lo orgánico y lo construido. Algunas piezas compuestas buscan la dependencia del muro como anclaje, e incorporan elementos incrustados de color -activadores de su formas- o aluden al cuestionamiento de valores sociales y políticos, como en la serie Medallas.

La libertad individual del carácter personal y artístico de Iñaki Olazabal, mantiene una firme voluntad expresiva que recrea en unas obras contundentes, con una apariencia de aleaciones metálicas que se confunden como formas encontradas, restos naturales o piezas preindustriales arqueologizadas por el tiempo, aspectos singulares de un escultor sincero y directo.

Javier Balda, noviembre 2016

Iñaki Olazabal Eceiza, Andoain 1959

Prestakuntza

1983-1985 Sorabillako tailerra. Andoain

1986-1990 Arteleku. Donostia

1991-1993 Kunstakademie. Düsseldorf. Alemania

Curriculum

Ikus curriculum osoa hemen: www.olazabal-escultura.es

Artelanak ditu toki hauetan:

- Ipiña-Bidaurrezaga bilduma. ARTIUM. Gasteiz
- Ignacio Zuloaga Fundazioa 100 urte. Santiago Etxea. Zumaia
- Itzal-Aktiboa bilduma. Donibane Garazi. Frantzia
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Oria Ibaia (Zegama, Ordizia, Ikaztegieta, Tolosa, Andoain, Zubieta, Orio)
- Oria Ibaia maketak. KUTXA
- Gipuzkoako Batzar Nagusiak
- Angeluko Udal Bilduma. Beatrix-Enea museoa
- Alacanteko Diputazioa
- Zumaia Udala
- Alcobendaseko Udala
- Andoaingo Udala
- Gasteizko Udala
- La Minoterie Nayart. Pau
- Coleccion Nautilus. Lanzarote
- Urdazubiko museoa. Nafarroa
- Euskal Herriko, Espainiako, Alemaniako eta Frantziako bilduma pribatu ugaritan ditu artelanak.

inakiolazabaleceiza@gmail.com

Iñaki Olazabal Eceiza, Andoain 1959

Formación

1983-1985 Taller de Sorabilla. Andoain

1986-1990 Arteleku. Donostia-San Sebastian

1991-1993 Kunstakademie Düsseldorf. Alemania

Curriculum

Ver curriculum completo en www.olazabal-escultura.es

Obra en:

- ARTIUM coleccion Ipiña-Bidaurrezaga. Vitoria-Gasteiz.
- Fundacion Ignacio Zuloaga. 100 años Santiago Etxea. Zumaia.
- Coleccion Itzal-Aktiboa. Saint Jean Pied de Port. Fancia.
- Diputacion de Gipuzkoa. Rio Oria Ibaia. (Zegama, Ordizia, Ikaztegieta, Tolosa, Andoain, Zubieta, Orio).
- KUTXA Maquetas Rio Oria Ibaia.
- Juntas Generales de Gipuzkoa.
- Museo Beatrix-Enea. Collection Municipale Anglet.
- Diputacion de Alicante.
- Ayuntamiento de Zumaia.
- Ayuntamiento de Alcobendas.
- Ayuntamiento de Andoain.
- Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.
- La Minoterie Nayart. Pau.
- Coleccion Nautilus-Lanzarote.
- Museo Urdax. Nafarroa.
- Obra en numerosas colecciones privadas de Euskal Herria, España, Alemania y Francia.

inakiolazabaleceiza@gmail.com



TORRE LUZEA

2019 Abuztuak 8 - Irailak 15
8 de agosto - 15 de septiembre 2019

ORDUTEGIA / HORARIO
Egunero / todos los días 18:30 - 20:30